

## Duintasuna, maitasuna...

Felipe Juaristi

*Gara*, 2004-10-07: 60.

Heriotza guztiak izugarriak izaten dira; guztiak diot, horrela orokorrean hartuta; baina badira heriotza batzuk hunkigarriagoak egiten zaizkigunak, hil dena ezaguna dugulako edo, besterik gabe, gure iruditeria partikular eta pertsonalean toki aparta betetzen dutelako. Hala gertatzen da maite ditugun artistak hiltzen direnean, miresten ditugun kirolariak hiltzen direnean. Bihotza, izan ere, Rocinante basati eta presatia da, eta beti ibiltzen da batetik bestera, noiz ukitua izango, noiz joa, noiz arrakaldua, itsasontzi arin eta hauskorra bezala. Negar egin nuen, esaterako, Mae West hildakoan; baita Urtainek bere zorigaiztoko bizitzari fin gaiztoa eman zionean ere, baina zer ahal dezake bihotz batek, nahiz eta bihotzik gogorren eta sendoena izan, bihotzik harrizkoena heriotzaren aurrean. Deus gutxi, heriotzak harririk gogorrenak suntsiarazten baititu. Malkoak dira, heriotza bigundu dezaketenak, baina gutxitan lortzen dute, malkoak dira gure arrastoak gure omenaldi xumea, hildakoa zerbait zela esateko modua. Hildakoen artean bizi gara eta ez gara jabetzen, ez gara ohitzen; hildakoz inguraturik bizi gara: hildakoen oroitzapenak alaitzen gaitu edo tristatzen, hildakoen arrastoak gidatzen gaitu zuzen helburura edo bestela galarazten bidean, hildakoak adibide baitira gu baino zaharragoak diren kulturetan, noski. Inor ez baita benetan hiltzen, zerbait uzten du beti lurtean, bizidunentzat.

Martin Ugaldek bere lana utzi zigun, batez ere, lan eskerria, lan mardula, lan izugarria. Indarra baitzuen, bestela ezin daiteke uler nondik ateratzen zuen behar zuen denbora egin zuen guztia egiteko. Literatura jorratu baitzuen eta ez trakets; saiakera ere bai. Horren adibide eta fruitu dira oraindik erabiltzen diren Euskal Herriko historiak. Kazetari ere izan zen. Eta ezin da ahantzi Venezuelen zegoelarik, erbestean, gaztelerez idatzi zituela ipuinak, eta, horretan adituak direnek, alegia ipuingintza arloko maisuek, ongi egiten zuela diote. Niri interesatu zitzaidan Martin Ugalderen literatura, baina ez zen bereziki hori izan, hura mirestera bultzatu ninduen.

Euskaltasunaren ideia unibertsala zuen, eta ez tokiko, orain modan dagoen bezala: euskal tribuak sakabanaturik, bakoitza bere ereduari, bere izaerari jarraiki, aldea balego bezala bateko izan ala bestela besteko. Izan ere, jaio-tokia da bizitzan dagoen gauzarik aleatorioena. Ez da gure esku dago jaiotako tokian jasotako hizkuntzari eustea, gal ez dadin. Tokiak baino gehiagok pertsonak erabakitzen dute hizkuntzaren geroa, eta hortxe dugu euskara, indar handi, gogor eta molde-gaitzen eraginpean. Hizkuntza eta lurra gauza bera dela dionik baitago bazterretan franko, eta alderantzizkoa esaten duenik ere bai, hizkuntzak ere kasualitatearen eragin direla, eta ez dagoela gure esku haiei bizitza ematea edo hiltzen uztea. Determinismoaren aurkako determinismo determinista, noski.

Martin Ugaldek euskaldun guztien alde egin zuen lana, eta hori eskertzekoa ez ezik, saritzekoa ere bada, gure mundu petral honetan.

Hil da gorputzez, baina badira gauza batzuk sekula hiltzen ez direnak: duintasuna, maitasuna, esaterako.